




**Aurrekontu
Irekiak
2021**

TXOSTEN EXEKUTIBOA



**GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN**

Bost urte betetzen dira Gipuzkoako Foru Aldundiak Aurrekontu Irekien lehen prozesua abiarazi zuenetik Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoaren esparruan.

Txosten honetan, aletzen da 2020ko azarotik 2021eko irailera bitartean egiten ari den prozesua, eta jasotzen dira 2021eko Foru Aurrekontu Irekietan lortutako emaitzak, bat etorrita gobernantza ireki eta kolaboratiboaren ereduarekin, gobernantza horretan oinarritzen baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa.

Foru erakundearen eta herritarren arteko komunikazioa sendotze aldera, Foru Aldundiak bere ahaleginen oinarritzat hartzen du laguntzea bere herritarrek Lurraldearen kudeaketan parte har dezaten, haiek partaide bihurtuz, jardun-ildoak eta plan estrategikoak definituz, eta gobernantza-eredu berriaren etengabeko hobekuntzan lan eginez, zeinean sortzen baitira gertutasuna, hurkotasuna, ezagutza eta gardentasuna Lurraldean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura gidatzen duen PDCA metodologiarekin bat etorritz (Plan-Do-Check-Act/Planifikatu-Egin-Egiaztatu-Jardun), txosten honek biltzen ditu egindako urrats eta fase guztiak, 2021eko foru aurrekontuen prestaketan sar daitezen.

Hurrengo orrialdeetan aletzen dira partaidetza-prozesuaren mugarriak, baita lortutako emaitzak ere. Lehenik eta behin, analizatzen da Gipuzkoako 2021eko partaidetzazko aurrekontuen testuingurua. Bigarrenik, azaltzen da prozesuaren analisiak oinarritzat duen metodologia, non aurkitzen den prozesuaren fitxa teknikoa. Ondoren, aurkezten dira prozesuaren esparruan lortutako emaitzak. Bukatzeko, azken elementu gisa aipatzen dira Foru Aldundiak hartzen dituen konpromisoak, helburutzat hartuta Gipuzkoan finkatzea partaidetzazko kultura bat eta gobernantza ireki eta kolaboratiboaren eredu berri bat.

Txosten honetan irudiz hornitutako partaidetza-prozesuaren emaitzek jarraitu diete azterlan sozial eta estatistikoaren berezko kalitate-estandarrei, emaitzen egiazkotasuna eta fidagarritasuna bermatuz, baita datuak eta anonimotasun nahiz konfidentzialtasun bermeak zorrotz zainduz ere, hala agintzen baitute, alde batetik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, eta bestetik, 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, Datu Pertsonalak Babestekoak eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak.

AURKIBIDEA

0. SARRERA **4. or.**

1. GIPUZKOAKO 2021EKO PARTAIDETZAZKO AURREKONTUEN TESTUINGURUA **7. or.**

1.1 PARTAIDETZA-KULTURA, GIPUZKOAREN EZAUGARRIA **7. or.**

1.2 PARTAIDETZA-PROZESUAREN EGUTEGIA **12. or.**

1.3 PROZESUA SOZIALIZATZEKO BIDEAK **14. or.**

1.3.1 Hedabideetan eta sare sozialetan hedatzea **14. or.**

1.3.2. Galde-sortak eta informazio liburuxkak postontzietan banatzea frankeo ordainduarekin **15. or.**

1.3.3. Partaidetza birtuala **17. or.**

1.4 ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI? **17. or.**

1.5 2021EKO PARTAIDETZA-PROZESUAREN BERRITASUNAK **18. or.**

2. METODOLOGIA **19. or.**

2.1. PARTAIDETZA-MAILAREN ANALISIA **19. or.**

2.2. EKARPENEN ANALISIA, IREKIAN **19. or.**

2.3 FITXA TEKNIKOA **20. or.**

3. EMAITZAK **21. or.**

3.1 PARTAIDETZA-EMAITZAK -1. fasea- **21. or.**

3.1.1. Partaidetza, generoaren arabera **22. or.**

3.1.2. Partaidetza, adinaren arabera **23. or.**

3.1.3. Eremu geografikoa **24. or.**

3.1.4. Emaitzak **25. or.**

3.2 PARTAIDETZA-EMAITZAK -2. fasea- **31. or.**

3.2.1. Partaidetza, generoaren arabera **32. or.**

3.2.2. Partaidetza, adinaren arabera **33. or.**

3.2.3. Eremu geografikoa **34. or.**

3.2.4. Emaitzak **35. or.**

3.2.5. Gauzatzekoak diren proiektuak **36. or.**

4. FORU ALDUNDIAK GIPUZKOAN DUEN KONPROMISOA **37. or.**

0. SARRERA

Orain arte gauzatutako partaidetza-prozesuen bideari jarraikiz, Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarri du Aurrekontu Irekien prozesu berri bat, prozesu horretan oinarritzen baitu bere gobernantza-eredu ireki eta kolaboratiboa, erreferentziazko erakunde gisa finkatua arlo horretan.

Gipuzkoa lanean ari da herritar guztientzako etorkizun bat eraikitzeko, erantzunez gobernantza-eredu berri bat sortu eta egokitu beharrari, protagonista izango diren herritarren eskutik. Gobernantza-ereduaren aldaketa bat da, berekin dakarrena herritarren partaidetza sendotzea, tresna bat izanik Lurralde Historikoaren aurrerabidea eta etorkizuna aldatzeko.

Urratsez urrats, eta helburu garbi bat edukita, hau da, gobernatzeko moduak eraldatzea eta Gobernantza Ona Gipuzkoako Foru Aldundiaren ezaugarri bihurtzea, modu proaktibo batean egiten da aurrera.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 aldirako Kudeaketa Plan Estrategikoak dagoeneko proposatzen zuen gobernantza ireki eta kolaboratiboaren eredua bat, oinarritua pertsonetan eta alderdi hauetan:

- ✔ **Lidergo** eraldatzailea, eta partekatua gainerako erakundeekin eta gizarte antolatuekin.
- ✔ **Lankidetz**a publiko-pribatua, proiektu estrategikoak bultzatzeko.
- ✔ **Elkarrekintza eta eztabaida** etengabea herritarrekin eta Lurraldeko gainerako eragile ekonomiko eta sozialekin.
- ✔ **Partaidetza aktiboa** eta Foru Aldundiko talde politiko eta teknikoaren protagonismoa duena, zertarako eta gobernu-ekintzaren lehentasunen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, oinarritzat hartuta zorroztasun, erantzukizun eta gardentasun irizpideak.

Aurrekontu Irekien ekimenak herri bokazioa du. Bestalde, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, jarraitu beharreko jarraibideak ezartzen ditu, eta partaidetzak nahiz gobernantza berriak Euskadin proiektatu behar dituzten arauak ematen ditu. Gipuzkoak aurrera egiten du ildo horretatik, herritarrekiko loturak sendotuz. Parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak irekitzen dira, eta apustu egiten da foru erakundearen lan-metodoak eta kudeaketa-sistemak hobetu eta modernizatzearen alde, tartean sartuz herritarrak eta gizarte eragileak politika publikoen eztabaidan eta garapenean.

5/2018 Foru Arauak, azaroaren 12koak, Herritarren Partaidetzari buruzkoak, 26. artikuluan, non arautzen baititu herritarrek parte hartzeko prozesuak aurrekontuak egiterakoan, hau ezartzen du:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak, dituen eskumenen eremuan, herritarrek parte hartzeko prozesuak ezarriko ditu, hala nola partaidetzazko aurrekontuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetako alderdi batzuk lehenesten laguntzeko, herritarren partaidetza-maila handitzeko eta hobetzeko.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztuko du, Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren irizpide orokorrak erabakitzen dituen Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez zehaztu ere, gastuen partiden zer ehuneko edo zenbateko gordeko diren partaidetzazko aurrekontuen prozeduraren bidez erabakitzeko.
3. Aurreko apartatuko herritarren partaidetza-prozesuak erregelamenduz garatuko dira, titulu honetako lehenengo kapituluaren ezarritako printzipio eta prozeduren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuak egiteko prozeduraren berezitasunak errespetatzeaz gain. Betiere, behar besteko aurrerapenaz egin behar da, partaidetza-prozesuaren emaitzak dagokion aurrekontuen foru arauaren tramitazioan txertatu ahal izateko.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetzazko aurrekontuen prozesuak sustatuko eta hedatuko ditu ekintza positiboen, informazioaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez, eta unibertsaltasunaren zein autoarauketaren printzipioen arabera, herritarren partaidetza bultzatzeko eta errazteko.

Herritarren partaidetza kudeaketa publikoan txertatzeak konfiantza hori sortzen laguntzen du, gobernuak indartzen baitira, politika publikoak legitimatzen, aniztasun soziala integratzen, interes sozialak agenda publikoan sartzen, herritarrek bizitza publikoaren antolaketa prozesuetan parte hartzen, eta gizarte zibilaren funtzioa sendotzen.

Azken batean, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurre egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundi moderno, eraginkor, gertuko, eta xume bat abian jartzeko eta finkatzeko erronkari, zeinak oinarritzko printzipio izango baititu akordioaren bilaketa, lidergo partekatua, austeritatea, Gobernantza Ona, eta entzuteko gaitasuna, eta gaitasuna izango baitu jorratu beharreko lehentasunak identifikatzeko eta benetako konponbideak planifikatu eta abian jartzeko. Denbora berri bat da, ausarki eta erabakitasunez heltzeko Lurraldea modernizatze aldera aurrean ditugun erronka estrategiko garrantzitsuei, eta denok

elkarrekin lan egiteko Gipuzkoaren etorkizunerako proiektu ilusionagarri bat eraikitzerakoan, printzipio hauetan oinarritua: garapena, elkartasuna, kohesioa, lankidetzeta, erantzukizuna eta ongizatea.

1. GIPUZKOAKO 2021EKO PARTAIDETZAZKO AURREKONTUEN TESTUINGURUA

1.1 PARTAIDETZA-KULTURA, GIPUZKOAREN EZAUGARRIA

Beste urte batez, Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetza-prozesu berri bat egin du, non herritarrek aurreko ekitaldietako partaidetza-mailaren ildoari jarraitu ahal eta behar dioten. Partaidetza horrek laguntzen du herritarrek gehiago ezagutzen, asimilatzen eta barneratzen kudeaketa administratiboko eredu berriaren kontzeptua. Egia da aurreko ekitaldian partaidetza txikiagoa izan zela, hura abiaraztean zegoen osasun egoeraren ondorioz, baina foru erakundeak balioa ematen die ez bakarrik lortutako emaitzei, baita ere prozesuari berari, zeinak lagundu nahi baitu gobernantza ireki eta kolaboratiboaren eredua sendotzen.

Horrela, eta herritarrekin harreman ireki bat sendotzearen eta parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak irekitzearen, lanean jarraitzen dugu lau ardatz hauekin, helburu baitute Lurraldean partaidetza sendotuko duten ekintzak, ekimenak eta prozesuak gauzatzea:



- Ekintzak gauzatzea partaidetzazko kultura **SENDOTZEKO**, zentratuta, batez ere, parte hartzeko bideak sortzean eta aktibatzean.

- Ekintzak egikaritzea partaidetzazko kultura **ZABALTZEKO**, apustu bat eginda Aldundiko departamentuak partaidetza-prozesuen garapenean tartean sartzearen alde.
- Ekintzak sustatzea partaidetzazko kultura **ERRAZTEKO**, herritarren eskura jarritz partaidetza ezagutu eta praktikatzeko tresnak.
- Ekintzak bultzatzea partaidetzazko kultura **HEDATZEKO**, hau da, ekimen multzo bat jarduerak hedatzeko baliabide telematikoen eta presentzialen bidez.

Herritarrei irekitako foru aurrekontuak egiteko prozesu bat abiarazteak berekin dakar Lurralde Historikoaren gobernantza-eredua aldatzea, non tartean sartu nahi baititugu herritarrak, zuzenean eta gardentasunez.

Ilido horretan, ondorioztatzen da ezen herritarren partaidetzatik eratorritako aukerak eta abantailak askotarikoak direla, eta horrek laguntzen duela eratzen Foru Aldundi moderno, eraginkor, garden, eta, batez ere, herritarrengandik hurbil dagoen bat. Beraz, da prozesu bat, zeinak, aurrekoek hasitako bideari jarraituz, helburu hauek baititu:


- Herritarrak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin **KONEKTATZEA**, haren lana eta kudeaketa ezagutaraziz.
- Gure herrikideen lehentasunak eta beharrak **EZAGUTZEA**, baita guztion benetako eskaerekin bat datozen konponbideak eskaintzea ere.
- Gipuzkoaren egunerokoan gizartearen protagonismo aktiboa **BULTZATZEA**, herritarrak Lurraldeko bizitza publikoaren ikusle hutsak izan ez daitezen.
- Foru Aldundi eraginkor, arrazional, efiziente eta garden bat **FINKATZEA** bere kudeaketa publikoan, herritar ahaldundu batzuekin.
- Hausnarketa aktiborako, eztabaidarako eta elkartasunerako **BIDEAK IREKITZEA**, lagunduko dutenak elkarrikeria eta komunikazioa hobetzen herritarren eta Foru Aldundiaren artean.
- Aurrekontu ireki batzuk **ONESTEA**, herritarrek, ordezkari politikoek eta teknikariek kontrastatuak.

COVID-19ak sortutako osasun larrialdiko egoeraren ondorioz, maila guztietan aldatu dira erritmoak, formak eta lehentasunak, eta foru erakundean ere nabaritu da egoera hori; horregatik, aurten, aldatu egin da 2021eko foru aurrekontuen prozesua, erantzun ahal izateko egoera berri horren ondorioz herritarrek dituzten behar berriei. Jasandako

murritzketek sortu dituzten zailtasunak eta mugak gorabehera, partaidetza-prozesua gauzatu egin da, alde batetik, berezko izaera duen prozesu bat izateagatik, herritarrek bere gain hartu dutena Aldundiarekin duten harremanaren parte gisa, eta bestetik, Batzar Nagusietan onetsitako Herritarren Partaidetzari buruzko foru arau berriak ezartzeagatik partaidetza-prozesu bat egin behar dela Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuak egitearekin batera.

Kontuan hartuta zein testuingurutan kokatzen den 2021eko Aurrekontu Irekien prozesu berri hau, Gipuzkoako Foru Aldundiak prozesu honen helburuak ardatz izan du proposamenak bilatzea, COVID-19ak eragindako ondorioak arintzen lagunduko dutenak. Horretarako, eta aurreko ekitaldietan bezala, **protokolo** bat diseinatu da, non prozesua garatzeko oinarriak ezartzen diren, zeina Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluari aurkeztu baitzitzaion, herri-galdeketa bat egin ondoren, eta, gero, onetsi egin baitzen, eta, horren ondorioz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Horrela, aurtengo prozesua alderdi batzuetan desberdintzen da –zeintzuk joango baikara datozen orrialdeetan zehazten– aurretik egindako prozesuekin alderatuta.



1. fasea: **Herritarren proposamenak jasotzea.** Fase honetarako, paperezko materiala diseinatu zen, Gipuzkoako 324.000 etxetako postontzietan banatu zena, eta osagai hauek zeuzkana: bi gutun-azal, proposamenetarako txartela, eta triptikoa.

Parte hartzeko baldintzak:

Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea; 16 urte baino gehiago izatea; eta beharrezko datuak ematea, horiek egiaztatzeko. Prozesuaren fase honetan, pertsona

bakoitzak nahi adina aldiz parte har zezakeen, horretarako prestatutako bide desberdinen bitartez.

Egokitutako partaidetza-kanalak:

- **Posta** erabiliz. Horretarako, Lurraldeko etxe guztietara bidalitako inprimakia erabiliz, frankeo ordainduarekin.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren **erregistroan** eta Gipuzkoako udaletako informazio bulegoetan.
- **Inprimaki digitalaren** bidez —<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza>—, eta inprimatutako dokumentuetan emandako **QR kodearen** bidez.
- **Topaketak**, Gipuzkoako gizarteko hainbat mailatan parte hartzeko protokoloan aurreikusitako bideetako bat zen, baina azkenean ez ziren egin, osasun segurtasuneko arrazoiengatik.

Herritarren proposamenak jasotzeko partaidetza-epea otsailaren 26tik martxoaren 30era bitartekoa izan zen. Behin hori amaituta, jasotako proposamenak Foru Aldundiko talde teknikoak aztertu zituen.

Teknikoki egiaztatu zen proposamenek betetzen zituztela protokoloan ezarritako baldintzak, eta, ondoren, ezarritako 6 gaien ardura duten zuzendaritzetara bidali ziren: enplegua eta aktibazio ekonomikoa, gizarte arloa, gazteria, adineko pertsonak, kultura-hezkuntza arloa, eta mugikortasun jasangarria.

Foru zuzendaritzek herritarren proposamen bakoitza aztertu, eta proiektu bihurtu zuten. Guztira, 30 proiektu tekniko sortu ziren.

Proiektuak definitu ondoren, partaidetza-bilera bat egin zen Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluarekin, non 18 proiektu hautatu ziren (3 proiektu eremu tematiko bakoitzeko, zeina aurrez definitu baitzen 2021eko foru aurrekontuen prozesuaren oinarrietan). Proiektu horiek pasatuko ziren hurrengo fasera, herritarrek lehentasuna eman ziezaieten.



Proiektuak hautatzea. Bigarren fase honetan, aurrekoan bezala, material espezifikoa diseinatu zen, Gipuzkoako 324.000 etxetako postontzietan banatu zena, eta osagai hauek zeuzkana: 2 gutun-azal, proiektuak bozkatzeko txartela, eta orri tolestu bat. Berriro ireki zen herritarren partaidetza, ekainaren 30etik uztailaren 25era bitartean, boto bidez 5 proiektu

hautatzeko, lehen partaidetza-fasean herritarrek egindako proposamenen ondoren sortutako 18 proiektuetatik.

Parte hartzeko baldintzak:


Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea; 16 urte baino gehiago izatea; eta beharrezko datuak ematea, horiek egiaztatzeko. Prozesuaren fase honetan, pertsona bakoitzak behin bakarrik parte har zezakeen, horretarako egokitutako edozein bide erabiliz.

Egokitutako partaidetza-bideak:

- **Posta** erabiliz. Horretarako, Lurraldeko etxe guztietara bidalitako inprimakia erabiliz, frankeo ordainduarekin.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren **erregistroan** eta Gipuzkoako udaletako informazio bulegoetan.
- **Inprimaki digitalaren** bidez –<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza>–, eta inprimatutako dokumentuetan emandako **QR kodearen** bidez.

1.2 PARTAIDETZA-PROZESUAREN EGUTEGIA

2021eko Aurrekontu Irekiak abian jartzeko prozesuaren abiapuntua 2020ko azaroan izan zen, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiaren eskutik, prozesua abian jartzeko beharrezkoa zen logistika garatuz. Kontuan hartuta prozesuaren tamaina eta ezartzen den lurraldearen hedadura, maila handiko plangintza, kudeaketa, sozializazioa eta koordinazioa behar dira. Partaidetza-prozesurako ezarritako egutegia urrats hauen arabera antolatu zen:



Aurreko prozesuetan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak nahikoa irizpide izan zituen, eta, horiei esker, Gipuzkoako herritarrek foru aurrekontuen inguruan zuten ikuspegia kontrastatu zuen.

2021eko Aurrekontu Irekiak partaidetza-prozesu landu eta bermatzaile baten ondoren gauzatu ziren. Herritarrekin komunikatzeko eta publizitate aktiboko estrategia bat integratu zuen, baita epe batzuk ezarri ere, Lurralde Historikoaren beharretara egokitu zirenak. Era berean, prozesuak modu integral batean erantzuten zien proposatutako ekimenei, koherentzia eta gardentasun handiagoz, herritarren arretarako eta partaidetzarako bide presentzialak eta birtualak sortuz.

Illo horretan, nabarmentzekoak dira alderdi hauek: ezartzea zenbait proiektu eta ekimen, lagungarri direnak ezohiko egoerak hobetzeko, zeintzuek, osasun larrialdiko testuinguru honetan, egunerokoan erasaten baitiete Gipuzkoako herritarrei; pixkanaka egokitzea metodologia bat, benetako premietara egokitzen dena; eta hobekuntza-irizpide berriak formulatzea, herritarren partaidetzarekin eta ahalduentzearekin lotuak.

1.3 PROZESUA SOZIALIZATZEKO BIDEAK

Komunikazio estrategia egituratzeko, bide ezberdinak erabili dira, bermatzearen prozesuaren hedapena, luzapena eta sozializazioa:

- **Hedabideetan eta sare sozialetan hedatzea.**
- **Galde-sortak postontzietan banatzea frankeo ordainduarekin.**
- **Partaidetza birtuala.**

1.3.1 Hedabideetan eta sare sozialetan hedatzea

Aurrekontu Irekien prozesuak hainbat hedapen-jarduera izan ditu, hala nola prentsaurrekoak prozesuaren hainbat unetan, Gobernantzako diputatu Eider Mendozaren eskutik, Herritarren Partaidetzako zuzendari Mikel Pagolarekin batera.

2021eko martxoaren 1ean aurkeztu zen prozesua. Prentsaurreko horretan, prozesuaren xehetasunak eman ziren, oro har, eta 1. fasearenak, zehazki:

- ✔ **Partaidetza-kanalak, baldintzak, eta zer galdetzen den.**
- ✔ **Edizio honetarako berritasunak.**

Ondoren, ekainaren 28an, jarraipena eman zitzaion, bigarren fasearen hasiera jakinaraziz, bide bera erabilita.

- ✔ **Partaidetza-kanalak, baldintzak, eta zer galdetzen den.**

Azkenik, abuztuaren 11n, modu berean egin zen lortutako emaitzen kontu-ematea.

Gobernantza Departamentuak, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, apustu egin du prozesuaren sozializazio aktibo baten alde, ekimena hedatuz prentsari, irratian eta sare sozialetan.


1.3.2. Galde-sortak eta informazio liburuxkak postontzietan banatzea frankeo ordainduarekin

2021eko Aurrekontu Irekien prozesurako, 324.000 fitxa/galde-sorta banatu ziren Lurraldeko etxe guztietan. Material horretan, zehatz-mehatz ematen zen prozesuan parte hartzea errazteko beharrezkoa den informazio guztia.

1. faseko fitxa / galde-sorta:

[illegible]

2. faseko fitxa / galde-sorta:



Aurrekontu Irekiak 2021

Bete inprimaki hau eta bidali isangatu helburuan jasotakoak iragun duen gutun-azalean sartuta.

Betiena este formulario y hándalo llegar dentro del sobre que lleva el sello de franqueo en destino.

izena _____ Abizenak _____
 izenburua _____

Jaizteko data _____ NAN _____
 Fecha de nacimiento _____ DNI _____

Telefonoa _____ Sexua _____ Udalerria _____
 Teléfono _____ Sexo _____ Municipio _____

Posta elektronikoa _____
 Email _____

Posta Kodea _____
 Código Postal _____

gipuzkoa.eus/partaidetza

ERAIKI ZURE GIPUZKOA. Hautatu X' batez zure ustez interesgarrienak diren BOST PROIEKTUAK.
CONSTRUYE TU GIPUZKOA. Selección con una X LOS CINCO PROYECTOS que consideres más interesantes.

Biozientziak eta Bida Azpiegiturak Biotecnologías e Infraestructuras Varias	Gizarte Arloa Ambito Social	Kultura, Oatzeria eta Kirola Cultura, Juventud y Deportes	Landa, Erremisa eta Ingurumen Ambito Rural y Medio Ambiente	Biozientziak eta Bida Azpiegiturak Biotecnologías e Infraestructuras Varias	Gizarte Arloa Ambito Social
☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea
☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea
☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea
☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea	☐ Gaiak aztertzen diren arazoak berriro aztertzea

Berriro ere, eta aurreko edizioetako metodologiari jarraituz, gogobetegarri gertatu baitzen, **postontzietan banatu ziren galde-sortak helmugako frankeo ordainduarekin**. 2021eko Aurrekontu Irekien partaidetza-prozesurako sarbidearen hedapena eta demokratizazioa lurralde osoan bermatzeko, informazio materiala bidali da Gipuzkoako etxe guztietara.

Aldi berean, telefono linea iraunkor bat prestatu zen, bai parte hartu nahi zuen edozein herritarri euskarria emateko, bai prozesuaren inguruan sortutako zalantzak argitzeko.

Beraz, fase bakoitzean presentzialki parte hartzeko, herritarrentzat egokitutako partaidetza-kanalak, hauek izan ziren:

- ☑ **Helmugako frankeo** ordaindua.
- ☑ **Foru Aldundiko eta udaletako erregistroa**.

1.3.3. Partaidetza birtuala

Partaidetza-kanal presentzialen osagarri gisa, eta lehendik egindako foru aurrekontuen prozesuetan kontrastatutako metodologiari jarraituz, <https://www.gipuzkoa.eus/esweb/partaidetza> web orria egokitu zen, galde-sortarekin eta prozesuari buruzko informazio zabalduarekin. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza>

1.4 ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI?

2021eko Aurrekontu Irekien ekimenaren lehen fasea 33 egunez egon zen aktibo (otsailaren 26tik martxoaren 30era), Gipuzkoan erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztientzat.

Aurrekontu Irekien prozesurako planteatutako proposamenak galdera bakarra du:

Zein da zure proposamena 2021eko Aurrekontu Irekietarako?

Izenburua:

Deskripzioa:

1.5. 2021EKO PARTAIDETZA-PROZESUAREN BERRITASUNAK

Aurreko lerroetan aipatu den bezala, 2021eko Aurrekontu Irekien prozesu berri honek planteamendu desberdin bat izan zuen hasieratik, testuinguruak hala eskatzen baitzuen. Egia bada ere prozesuaren funtsa berbera dela bere jatorritik bertatik, eta horrekin Gipuzkoako herritarren eguneroko beharrei eta kezkei erantzun nahi zaiela, oraingo honetan prozesua fokalizatu nahi izan zen COVID-19tik eratorritako ondorioak arintzeko. Beraz, planteatutako proposamenek premisa horri erantzun behar zioten, eta sailkagarriak izan behar zuten partaidetza-prozesuaren protokoloan aurrez ezartzen ziren eremuen barruan.

Ohiko partaidetza-kanalak mantendu dira: helmugako frankeo ordaindua, eta modu presentziala Foru Aldundian eta udaletan. Hala eta guztiz ere, osasun larrialdiaren egoera zela-eta, ezinezkoa izan da kalean bertan hurbiltzea karpa ibiltarien bitartez, prozesuaren ezaugarri baitira dagoeneko. Orobat, osasun segurtasuna zela-eta, ezin izan dira Topaketak egin gizarteko askotariko kolektiboekin, protokoloan planteatzen zen bezala.

2. METODOLOGIA

Ikuspegi metodologikoa bat dator datu estatistikoak analizatzeko erabili ohi diren ikerketa-teknika kualitatibo eta kuantitatiboekin. Horretarako, aplikatu diren kalkulu estatistikoek emaitzen izaera zehazten dute Lurraldean adierazgarria den lagin baterako.

2.1. PARTAIDETZA-MAILAREN ANALISIA

Laginaren tamaina parte-hartzaileen guztizko kopuruak osatzen du, hau da, 2021eko Aurrekontu Irekien prozesuan gaitutako hainbat bidetatik galde-sorta zuzen bete dutenek, eta 16 urtetik gorakoak izateko eta Gipuzkoan erroldatuta egoteko baldintzak bete behar dituztenek. Bereizitako modu batean, adierazle eta aldagai hauen arabera hartuko da kontuan partaidetza:

- Online parte-hartzaileen kopurua, liburuxka bidali duten parte-hartzaileen kopuruarekin alderatuta.
- Generoaren arabera, gizonen eta emakumeen partaidetzaren arabera.
- Laginaren batez besteko adina.
- Partaidetzaren jatorrizko herria.

Ohar metodologikoa: Emaitza horiek aurkitzeko, lortutako datuak iragaziko dira (presentziala edo online). Era berean, histograma bat egingo da adinaren banaketa islatzeko, eta lagin presentzialaren banaketa geografikoa behatuko da.

2.2. EKARPENEN ANALISIA, IREKIAN

Herritarren ekarpenak partaidetza-prozesuaren protokoloan definitutako eremuetan kuantifikatu eta kodetu dira, halako eran ezen aukera egongo baita mapa kualitatibo bat egiteko, zeinak bilduko baititu parte hartu duen laginak egindako ekarpenak.


- Unibertsoa: 626.228 (2020/06/16ko errolda, Gipuzkoan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonak. Iturria: Eustat) [322.500 emakume eta 303.728 gizon].
- Laginaren tamaina: 2.363 parte-hartzaile.
- Metodoa: Laginketa ez-probabilistikoa.
- Errore-marjina: 626.228 laguneko populazio batetik 2.363 pertsonako lagin bat hartuta, % 2ko gehieneko errore-marjina lortzen da [erabilitako konfiantza-tartea % 95 da].
- Informazio bilketa: Liburuxkak bidaliz eta erregistroa eta online bidea erabiliz egindako ekarpenak.
- Noiz egin zen: 2021eko otsailaren 26tik martxoaren 30era.

3. EMAITZAK

3.1 PARTAIDETZA-EMAITZAK -1. fasea-

Lagina, guztira, 2.363 lagunek osatzen dute


Partaidetza-kanala



Grafikoak erakusten duen bezala, herritarrek gehien aukeratu zuten **partaidetza-kanala** presentziala izan zen (1.998 lagun), telematikoaren aldean (365 lagun), zeina partaidetza osoaren % 15 baino ez baita.


3.1.1. Partaidetza, generoaren arabera

Parte-hartzaileek emandako datuak kontuan hartuta, grafiko hauetan ikus daiteke nahiko orekatua izan zela gizonen eta emakumeen arteko partaidetza.






3.1.2. Histograma

Parte-hartzaileen adinari dagokionez, hurrengo grafikoan agertzen da adin tarte bakoitzak prozesuan duen eragina. Oro har, **partaidetza-maila handiena duen adin tarteak 30-49 urte artekoa da.**



3.1.3. Partaidetza, eremu geografikoaren arabera

Eremu geografikoari dagokionez, grafikoetan agertzen diren datuek 2021eko Aurrekontu Irekien lehen fasean presentziarik handiena izan duten herriak adierazten dituzte: Donostia izan da, alde handiarekin, gainerakoen aldean.




Prozesuaren esparruan lehenengo fasean bildutako ekarpenak **2.371** dira **guztira**, eta horien bitartez pultsua hartu ahal izan zitzairen herritarrei, eta parte-hartzaileen kezken

eta interesen argazki bat egin ahal izan zen. Bildutako ekarpen guztietatik 1.035 onartu ziren, eta gainerako 1.336ak prozesutik kanpo geratu ziren, ez zirelako Aldundiaren eskumenekoak, edo hain abstraktuak zirelako beren planteamenduan ezen talde tekniko arduradunak ezin izan baitzituen baloratu, ez teknikoki, ez ekonomikoki.

Galdera: zein da zure proposamena 2021eko Aurrekontu Irekietarako?

Jasotako ekarpenak kodifikatu eta analizatu ondoren, ikusi ahal izan zen proposamen gehien jaso zituzten eremuak hauek izan zirela: **gizarte eremua (457)**, **mugikortasun jasangarria (270)**, **adineko pertsonak (137)**, **enplegua eta jarduera ekonomikoa (126)**, **gazteria (34)**, eta **kultura-hezkuntza eremua (11)**. Grafiko honetan ikus daiteke:

EKARPENAK EREMU TEMATIKOAREN ARABERA



Jarraian, 2021eko Aurrekontu Irekien lehen fasean jasotako ekarpenen laburpena erakusten da, Aldundiko departamentutan eta zuzendaritzatan sailkatuta eta taldekatuta, ondoren balorazio ekonomikoa eta teknikoa egiteko.

1. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO PUBLIKOA

Mugikortasuneko eta garraioko departamentuari zuzendutako ekarpenek alderdi hauek aipatzen dituzte: bidegorri tarte berriak sortzea, bizikleta bidezko mugikortasuna ahalbidetzeko; lehendik dauden tarteak eguneratzea; bizikleta publikoak alokatzeko sistema lurralde osora estrapolatzea; eta, aldi berean, bizikletak konpontzeko zutoinak eta horientzako ikuztegiak instalatzeko aukera.

Jakinarazten da egokiera dela hauetarako: Lurraldeko garraio publikoa hobetzea, lineak eta maiztasunak handituz, garraio pribatuaren erabilera txikiagoa izan dadin; bide berdeak eta oinezkoen bideak kontserbatzea; eta Gipuzkoako hainbat lekutan komun publikoak instalatzea, besteak beste.

2. ERREPIDEAK

Eskaerek ardatz dituzte honelakoak: etxebizitzaren aldameneko errepide zatietan panel akustikoak jartzea; Iruratik igarotzen den zirkulazio fluxua murriztea; bigarren mailako bideak mantentzearen garrantzia; bidesariak kentzea; saihesbide berriak sortzea mugikortasuna errazteko; bideetako seinaleetika eguneratzea; N-1 errepidea berritzea; eta errepideen argiztapena eta garbiketa hobetzea.

3. PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

Arlo honetan bildutako eskaerak Lurraldean dagoeneko nolabait lantzen ari diren beharrak deskribatzen dituztenak dira, hala nola zahartzaroko bizi-kalitateari buruzko proposamenak (Adinberri, esaterako), etxebizitza kolaboratiboen eredu berriak, elektromugikortasuna sustatzea, talentua sustatzea, euskarazko ikus-entzunezkoak sortzea, Lurraldearen irisgarritasuna, ekonomia zirkularra, eta adinekoak beren etxean egon daitezen laguntzea.

4. PLANGINTZA, INBERTSIOAK ETA PRESTAZIOAK

Departamentu honetan, alderdi hauei buruzko proposamenak biltzen dira: egoitza berriak sortzea; eguneko zentroak eta horien prestazioak; mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileei ematen zaizkien prestazioak hobetzea; gainera, herritarrekiko

izapideen informazio zerbitzuari modu aktiboago batean heldu behar izatea; eta baita mediku epaimahaietako izapideak eta burokrazia arintzea ere.

5. MENDIAK ETA NATURA INGURUNEA

Mendien eta natura-ingurunearen eremuan gehien errepikatzen diren eskaerek hauen alde egiten dute: mendien kontserbazioa, mendi ibilbideen eta pisten egokitzapena, ingurumenaren aldeko dibulgazio eta kontzientziazio kanpainak egitearen garrantzia, eta animaliak aintzat hartzea eta babestea, besteak beste.

6. EKONOMIA SUSTAPENA

Ekonomia sustapeneko departamentuko eskaeren artean daude alderdi hauek aipatzen dituztenak: enpresa txikiei laguntzak eman behar izatea; hainbat sektoretarako enplegua sustatzea, hala nola gazteak, adineko pertsonak eta emakumeak; ostalaritza babestu behar izatea; eta kontsumo bonuak sortzea.

7. INGURUMENA

Ingurumenaren arloan, alderdi hauei lotutako proposamenak jasotzen dira: hondakinen kudeaketa; ibaiak, hondartzak eta mendiak garbi mantentzearen garrantzia; energia berriztagarriak abiarazten laguntzea; eta dibulgazio kanpainak egitea. Horra hor ingurumeneko departamentuari lotuta gehien errepikatzen diren proposamenak.

8. KULTURA

Kultura-eremuari dagokionez, eskaerak honelako proposamenetan ardazten dira: kultura-eskaintza zabaltzea, arlo horretako laguntzak handitzea, ondarea berreskuratu eta mantentzea, eta kultura-jarduera deszentralizatzea, nagusiki.

9. HAURREN BABESA ETA GIZARTE INKLUSIOA

Babesaren eta gizarte inklusioaren eremuan gehien aipatutako elementuak hauek dira: oinarritzko giza eskubideak, migratzaileentzako laguntza, behartsuenen gizarteratzea, eta indarkeria matxista.

10. MENDEKOTASUNAREN ETA DESGAITASUNAREN ARRETA

Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritzari dagokionez, eskatzen da baliabideak gehitzeko, etxeko laguntzak hobetzeko, egoitza guztien kudeaketa publikoa egiteko, itxarote-zerrendak murrizteko, eskainitako zerbitzuak hobetzeko, eta kolektibo horientzako etxebizitzak edukitzeko.

11. GAZTERIA

Eskari handieneko proposamenak hauek dira: gazteentzako aisialdi eskaintza zabaltzea, udaldian haur udalekuen eskaintza handitzea, eta gazteen topaguneetarako espazioak berregokitzea.

12. NEKAZARITZA ETA LURRALDE OREKA

Proposamenek alderdi hauek biltzen dituzte: gertuko/km0 produktuak sustatzea, eta, nolabait, abeltzaintza- eta nekazaritza-sektorea bultzatzea.

13. OBRA HIDRAULIKOAK

Obra hidraulikoetako departamentuarekin lotutako zenbait proposamen helarazi dira, ekin diezaion ibai ibilguak egokitu eta garbitzeari, egoera txarrean dauden zubiak berritzeari, eta ur hornidura lurralde osoan bermatzeari.

14. KIROLAK

Kirol departamentuari egiten zaizkion eskaerek kirol eskaintza hobetzeko nahia aipatzen dute, eta eskaintza horrek belaunaldien arteko kirol programak jasotzekoa, baita lurraldeko kirol instalazio guztien artean espazioak alokatzeko sistema partekatu bat abian jartzekoa ere.

15. DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEA

Proposamen guztiek dute ardatz berdintasunaren alde lan egiten jarraitzearen garrantzia.

16. OGASUNA

Izapideak telematikoki kudeatu ahal izatea, kreditu/zordunketa txartelaren bidez egin ahal izatea, eta ikuskatzaileak indartzea dira ogasun departamentuarentzat aipatzen diren eskaerak.

17. TURISMOA

Autokarabanentzako espazio berriak sortzea, turismoa bultzatzea Gipuzkoako naturagunea sustatuz, eta ibilbideak eta bidezidorrak ondo seinaleztatuta mantentzea, baita haien publizitatea egitea ere.

18. BERRIKUNTZA ETA INTERNAZIONALIZAZIOA

Zientzia eta ikertzaileak babestea, atzerrira lan egitera atera den talentua berreskuratzea eta energia berriztagarriak garatzea dira berrikuntzaren eremuko parte-hartzaileek helarazitako eskaerak.

19. LANDA UDALERRIEN GARAPENA

Landa udalerriak garatzeko ahalegin bat eskatzen da, landa eremuak jenderik gabe gera ez daitezen, baita errepiderik txikienak hobetu daitezen ere, bizilagunen mugikortasuna errazteko.

20. BESTE EKARPEN BATZUK

Orain arte aipatutakoez gain, beste ekarpen batzuk ere jaso dira, hain ugariak ez izan arren interesgarriak direnak eta analisia egiteko modukoak. Hori da, esaterako, Herritarren Partaidetzari buruz jasotako proposamenen kasua. Proposamen horien

artean aipatzen dira adineko pertsonen gizartean duten zeregina eta partaidetza-prozesuak hobetzeko alderdiak.


Araubide juridikoari eta pertsonen kudeaketari zuzendutakoak, non aurkitzen baitira proposamen batzuk aldeztu dutenak dibertsitatea duten pertsonen lanpostu egokituak esleitzea administrazio publikoan; Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusiarekin lotutako ekarpenak, lotura dutenak zergen jaitsierarekin eta autonomoei nahiz saltoki txikiei fiskalitatea murriztearekin.

Bestalde, zenbait proposamen jasotzen dira helburutzat dutenak garrantzia ematea euskararen erabilera eguneroko bizitzako esparru guztietan indartzen jarraitzeari.

3.2 PARTAIDETZA-EMAITZAK -2. fasea-

Gutuzko lagina 4.782 lagunek osatua


Partaidetza-kanala



Berriro ere, eta parte hartzeko prozesuaren 1. fasean bezala, grafikoak erakusten du herritarrak ondoen mugitzen diren **partaidetza-kanala** presentziala dela, alde handiz (4.025 lagun), telematikoen aldean (757 lagun).


3.2.1. Partaidetza, generoaren arabera

Parte-hartzaileek emandako genero datuen analisiak adierazten du, bai online bai presentzialki, **emakumeen partaidetza gizonena baino handiagoa izan dela.**




3.2.2. Histograma

Partaidetza-prozesuaren bigarren faseko adin tarterik aktiboenean zentratuz, ikus daiteke 30 eta 49 urte bitarteko pertsonen izan dutela eraginik handiena prozesuan, eta, ondoren, oso gertu, 50 eta 64 urte bitarteko pertsonen.



3.2.3. Partaidetza, eremu geografikoaren arabera

2021eko Aurrekontu Irekien 2. fasean presentzia handiena izan duten herriei dagokienez, datuek hau agertzen dute:



3.2.4. Emaitzak 2. FASEA

Lehen ere esan dugunez, 2021eko Aurrekontu Irekien **2. fasean parte hartu zutenak 4.782** dira, guztira, eta emaitza hauek lortzen dira hautatuak izatera aurkeztutako proiektuen lehentasunari dagokionez:



3.2.5. GAUZATZEKOAK DIREN PROIEKTUAK

2021eko Aurrekontu Irekien bigarren faseko prozesuaren esparruan lortutako emaitzen ondoren, proiektu hauek gauzatuko dira:

- Lehen enplegua
- Gipuzkoako basoen kudeaketa integral eta jasangarrirako erakunde bat sortzea
- Alzheimerra diagnostikatu zaien pertsonentzako psikoestimulazio lantegia, Arrasaten
- Klimarekin konprometitura herritarrek dituzten erronkak
- Gizartea eraldatzeko proiektua, zaintzari balioa emateko
- Formatu txikiko kultura-ekitaldiak programatzea Gipuzkoako lurralde osoan

Kontuan hartuta prozesu honi esleitutako aurrekontua 1.000.000 eurokoa dela, ondorioztatzen da ezen herritarren aldetik babesik handiena lortu duten 5 proiektuak osorik gauzatu ahal izango direla, eta, horiekin aurrekontu osoa estaltzen ez denez, seigarren proiektuari, nahiz eta 200.000 euroan baloratuta egon, tamaina aldatuko zaio, aurrekontuaren gainerako 160.000 euroekin gauzatu ahal izateko.

4. FORU ALDUNDIAK GIPUZKOAN DUEN KONPROMISOA

5/2018 Foru Arauak, azaroaren 12koak, Herritarren Partaidetzari buruzkoak, 26. artikuluan ezarritakoa betez, zeinak arautzen baititu herritarren partaidetza-prozesuak aurrekontuak egiterakoan, lortutako emaitzen kontuak eman dira (banan-banan bidali dira gutunak proiekturik bozkatuenen emaitzekin), eta Foru Aldundiak hartuko dituen hainbat konpromiso onetsi dira, herritarren eskaerei erantzunez.

Horrela, prozesuaren emaitzak eta mugarriak jakinarazi eta helarazi zaizkie prozesuan parte hartu duten pertsoneri, bai eta Lurraldeko gainerako herritarrei ere, hainbat kanalen bitartez, balioa emanaz egindako partaidetza-ariketari eta herritarrek egindako ekarpenei, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzendutako entzute aktiboko ekimen honen bidez jasotakoei.

Horrenbestez, Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du partaidetza-prozesuko 2 faseen emaitzak jakinarazteko eta herritarrengandik jaso diren eskaerei erantzuteko. Era berean, erakunde honek konpromisoa hartzen du benetako kontu-emate bat egiteko, txosten honen bitartez, gaitzat hartuta lehentasunez jardun beharreko proiektuen eta politiken gauzatze-maila, zeintzuk eratortzen baitira 2021eko Aurrekontu Irekien ekimenaren esparruan egokitutako partaidetza-prozesutik.



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN